

Ebazpena: R48 2022

Espedientea: 21/2013

Gasteizen, 2022ko irailaren 13an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje Batzordea osatzen duten Violeta Ruiz Almendral presidenteak eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese batzordekideek erabaki hau hartu dute:

ERABAKIA

Gipuzkoako Foru Aldundiak (aurrerantzean, GFA) Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren (aurrerantzean, ZAEA) aurka aurkeztutako gatazkari buruzkoa, BSA merkataritza-sozietateak egindako eragiketengatik inportazioari dagozkion BEZaren kuotak biltzeko eta kobratzeko eskumenari buruzkoa. Gatazka hori 21/2013 espediente-zenbakiarekin izapidetzen da Arbitraje Batzorde honetan.

AURREKARIAK

1.- BSA merkataritza-sozietateak Gipuzkoan du zerga-egoitza, eta lurralde horretan BEZagatik duen zerga-kuota % 100ekoa da.

2.- 2004ko ekainaren 17an, ZAEAK BSARI jakinarazi zion 1.029.425,41 euroko BEZaren behin-behineko likidazioa. Zenbateko horretatik, 970.470, 63 € zerga-kuotari zegozkion, Aduana ez den Beste Gordailu baten (ABG) baimenean jasota ez dauden eragiketak egiteagatik (2000., 2001., 2002. eta 2003. urteak). BSAk

sartu zuen 2005eko abenduaren 29an zenbateko hori, eta gainerakoa berandutze-interesei zegokien.

3.- 2006ko urtarrilaren 25ean, BSAk 2005eko ekitaldiari dagokion BEZaren aitortpena aurkeztu zuen GFAn, eta, bertan, ZAEAn egindako sarrera (970.470, 63 €) kendu beharreko kuota gisa sartu da. 2006ko otsailaren 14an, GFAk 2005eko ekitaldiko BEZa itzuli zuen.

4.- BSAk ZAEAREN behin-behineko likidazioa errekurritu zuen ondoz ondoko instantzia administratibo eta prozesaletan, haren uzien ezespenaren aurka, eta, azkenik, kasazio-errekurtsoa jarri zuen Auzitegi Gorenean. Haren 2012ko azaroaren 28ko epaiak (ECLI: ES: TS: 2012:7922), errekurtsoa baietsi zuenak, behin-behineko likidazioa baliogabetu zuen, ABGren funtzionamendurako baimen-baldintzak ez betetzeagatik.

5.- 13R73/TB 136719 zenbakiko itzulketa-espeditentean emandako 2013ko ekainaren 28ko Ebazpenaren bidez, ZAEAK berandutze-interesak itzuli zituen, bai eta interes horiek sartu zirenetik sortutako berandutze-interesak ere, baina ez zuen itzuli BEZagatiko tributu-kuota gisa ordaindutakoa, jasanarazi egin baitzen eta BSAk kendu baitzuen, beraz, kenkarirako eskubiderik ez duen zergapeko pertsonak bakarrik eska zezakeen itzultzeko.

6.- 2013ko irailaren 6an, GFAk inhibitzeko eskatu zion ZAEARI, eta hark erantzunik eman ez zuenez, 2013ko azaroaren 5ean gatazka aurkeztu zuen Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordean.

7- Gatazka prozedura arruntaren bidez izapidetu da, eta, beraz, 2022ko maiatzaren 19an, bete egin zen ZAEAK alegazioak aurkezteko eta dagozkion frogak eta agiriak aurkezteko eta proposatzeko izapidea, hilabeteko epean, eta ZAEAK eskatu zuen epe hori luzatzea. Hala ere, 2022ko ekainaren 24an, GFAk

espedientea artxibatzeke eskatu zuen, haren uziak prozesutik kanpo bete zirelako.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena.

Arbitraje Batzordeak du gatazka hau ebazteko eskumena, Ekonomia Itunaren 66. artikuluan xedatutakoaren arabera, Arbitraje Batzordearen eginkizunak ezartzen baititu:

a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkak ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, Sozietateen gaineko Zergaren edota Balio Erantsiaren gaineko Zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banako zerga harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean auzirik sortuz gero, erabakitzea.

2.- Atzera egitea

Atzera egitea, prozedura amaitzeko modu gisa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 94. artikuluan arautzen da, eta Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 8. artikulua egindako igorpenari jarraiki aplikatzen da.

Beraz, aipatutako 94. artikuluan xedatutakoaren arabera, Arbitraje Batzorde honek onartu egin behar du GFAk eskatutako atzera egitea, ez baita prozeduran hirugarren pertsona interesdunik agertzen, eta gatazkan sortutako gaia ez baita interes orokorrekoa, eta ez baita komeni hura bideratzea hura definitzeko eta argitzeko.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

ERABAKITZEN DU

- 1.- Gatazka artxibatzea GFAk atzera egitearen ondoriozko prozeduraren xedea gerora galtzeagatik.
- 2.- Erabaki hau Zerga Administrazioiko Estatuko Agentziari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta BSArri jakinaraztea.